

MAITE ZAITUT!

Ezagutu zintudanetik

laino artean murgildu naiz,

airezko kotoi hauen artean

zure begiradaren bila nabil

nire eguna argi dezazun

mundua eguzkiaren bila

dabilen bezala.

Momentu honetan

ate bakarreko paradisuan nago

zure bihotzera eramango nauen

ate bakarraren aurrean.

Zure besarkada bakoitza

bihotza berpizten didana

zure gorputza gertu

sentitzen dudana.

Goizeroko muxu bakoitza

bizitzeko indarra

ematen didana

nirekin zaudela

sentiarazte didana.

Muxu horrek

ez zarela joan esaten dit garraxika

maite nauzula ahozkatuz.

Dugun haserre bakoitza

laban gorri bat da

erditik apurtu eta birrintzen nauen

tximista latza.

Batera gaudenean

lozez beteriko baso batean

murgiltzen gara

gure mundua sortzen dugu

bion artean

muxukatuz, laztanduz...

Baina egunero

galduko zaitudanaren

beldurrarekin esnatzen naiz

baso beltz hartan murgiltzeko beldur

ezpata beltz hura ikusteko beldur.

Ez zaitut inoiz

nigandik urrun ikusi nahi.

Maite zaitut hitza

gu bion hizkuntza xamurra

maitasunaren iturria.

Behin eta berriz esango dizut

eta ez ahaztu

goiz, arrats, egun eta gauetan

MAITE ZAITUT!